



Ostiral eta larunbat honetan izango da

**FESBALEK ETA EROSKI-K MARTXAN JARRI
DUTE AURTEN ERE JANARIAK BILTZEKO "KILO
OPERAZIOA"**

- EROSKIren hipermerkatu guztietan egingo dute bilketa, baita EAEko eta Nafarroako supermerkatu sarean ere
- Dendako produktuen bilketa tradizionalaz gain, aurtan ere 5 euroko txartelak erosteko aukera izango da ordainlekuetan; horrela, Elikagaien Bankuak horiek erabiliko ditu premiarik handiena duten produktuak erosteko
- EROSKI joan deneko hogeitau urtean baino gehiagoan ari da FESBAlekin

Elorrio, 2019ko maiatzaren 29a.- Ostiralean, Kilo Operazioaren kanpaina hasiko dute Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak ([FESBAL](#)) eta [EROSKI](#)k premiarik handiena duten kolektiboek lagundu nahi dieten kontsumitzaileen dohaintzak biltzeko helburuz. Larunbatera arte luzatuko da kanpaina, eta EROSKIren hipermerkatu guztietan jarriko dute martxan, baita EAEko eta Nafarroako supermerkatuen sarean ere. Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako supermerkatu frankiziatuek eta Melillako hipermerkatu frankiziatuak kanpainan parte hartuko dute.

Aurtan ere, laugarren urtez, bi dohaintza mota izango dira: produktuak fisikoki eman daitezke, beti bezala, eta, bestela, 5 euro balio duten txartelak erosi ordainlekuetan. Kanpaina amaitzean, txartelen bidez lortzen den dirua Elikagaien Bankuari emango zaio, gehien komeni diren eta behar diren produktuak erosteko.

"Aurtan ere, behartsuenei elkartasuna erakusteko eskatzen diegu gure bezeroei. EROSKI-k konpromisoak hartuak ditu gizartearekin, eta behar handiena dutenekiko elkartasuna eta ardura dago konpromiso nabarmenen artean; hori dela eta, gizarte erakundeekin kolaboratzen dugu. Guk, berriz, EROSKI-tik gure babesa emango diogu aurtan ere Elikagaien Bankuek ematen duten laguntza ezin estimatuari, bezeroen dohaintza osoaren %7ko ekarpen gehigarria emanda", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun Saileko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

"Eskerrak eman nahi dugu, EROSKI-k FESBAlekin daraman lankidetzak luzeagatik, beste urte batez. Elikagaiak biltzeko 'Kilo Operazioa' oso garrantzitsua da hartan parte hartzen duten Elikagaien Bankuentzat; izan ere, biltokietan elikagai asko sartzen da horrela, zeina ondoren, ongintzako entitateen bidez gehien behar

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



dutenei banatuko baitzaie", esan du Elikagaien Bankuko Espainiako Federazioko presidentek, Juan Vicente Peralek.

1.500 tona janari baino gehiago eman zituzten EROSKIren bezeroek 2018an, haren sare komertzialean FESBALen alde egindako bilketa kanpainetan.

Hogei urtean baino gehiagoan Elikagaien Bankuarekin lanean

1996an hasi zen EROSKI Elikagaien Bankuarekin lankidetzan, [Bizkaiko Elikagaien Bankuak](#) proposatuta eta kontsumitzaileek berek eskatuta behartsuen eta bazterkeria soziala jasateko arriskuan direnen kolektiboari elkartasuna erakusteko. Hala, urte horretan bertan hasi zen Kilo Operazioa, elikagaien bilketa kanpaina, EROSKIko dendetan.

Gero, EROSKIk martxan jarri zuen kontsumitze-data gomendatua hurbil zuten baina oraindik ziurtasun osoz jateko onak ziren elikagai ontziratuak emateko programa. Gaur egun, EROSKIren programa horrek eta Elikagaien Bankuak jarraitzen dute konpromiso horrekin, '[Ez alferrik galdu](#)' programaren bidez, jateko on den elikagairik ez botatzeko bere hipermerkatu eta supermerkatu sare guztian.

Krisi ekonomikoaren lehen ondorioak hastearekin, EROSKIk eta FESBALek janari freskoetara zabaldu zuten programa hori; horretarako, beharrezkoa izan zen dohaintzaren logistika berriz definitzea, hotz kateari eusteko eta ziurtatzeko elikagaiak segurtasun osoz ailegatzeko direla hartzailengana.

Egindako lana aitortua dio Elikagaien Bankuen Espainiako Federazioak, 2014an, [Urrezko Galburuaren sariarekin](#); hain zuzen, hori da erakundearen saririk handiena, sobera gelditu diren elikagaiak banatzen nabarmentzen diren erakundeei ematen diona.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)